

Berit proiektuaren aurkezpena

Berit hitzak hebrear jatorria dauka, aliantza esan nahi du, konpromiso irmoa. Biblian ageri da termino hori, eta promes bezala ere interpreta daiteke, Jainkoaren eta haren Herriaren arteko harremana adierazteko.

Eta orain, Haur Hezkuntzan, Erlijio Katolikoa irakasteko proiektu berri baten izena ere bada Berit.

Proiektu honen bidez, esperientzia testuinguru bat sortu nahi dugu ikasgelan, Haur Hezkuntzako neska-mutilak Jesusen irakaspenak jasotzeko presta daitezen.

Bestalde, haurrak Jainkoarengana hurbildu nahi ditugu Jesusen bidez. Hark lagunduko digu erlijio ospakizunak, balioak, bizipenak, ikurrak eta jaiak zein diren jakiten, eta haiek denak ulertzen eta balioesten.

Ebanjelioa erakutsi nahi diegu hurrei, beraiek ulertzeko moduan, Jesus lagun ona dela ikus dezaten eta kristauon taldeko kide sentitzen has daitezen. Horrenbestez, gure proiektuak Biblia eta hark transmititzen digun jakinduria ditu oinarritzat, huraxe da landuko ditugun helburuen eta edukien ardatza.

Haur Hezkuntza etapa ezin hobea da kristau fedearen balioak eta funtsezko elementuak zein diren jakiten hasteko, etorkizunean ikasiko dutenaren oinarri izango direnak. Azken batean, erlijio esperientzietara hurbiltzen hasiko dira. Etapa honetan, gauzen berri izaten eta esperimendatzeko ari dira haurrak, eta horrexegatik uste dugu une honetantxe egin behar dela bidea, Lehen Hezkuntzan Jainkoaren berri sakona izateko beharrezko baldintzak bete daitezen.



Proiektu honek Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan Erlijio Katolikoa irakasten duten irakasleen zuzeneko esperientzia du abiapuntu.



Justifikazio metodologikoa

Berit proiektuak honako alderdi hauek hartu ditu kontuan jarduerak proposatzeko:



- Haur Hezkuntzako etapako haurren (3-6 urte bitartekoak) berezko **ezaugarri psikoebolutiboak** hartu ditugu abiapuntu. Hala ere, haur bakoitzak bere ikasteko erritmoa du, nor berea, eta, hortaz, bakoitzaren **desberdintasun indibidualak** hartu ditugu kontuan.
- Haurrak hurbilen duen errealitatea abiapuntutzat hartutako ikaskuntza adierazgarria proposatzen dugu, etapa horren berezko erlijio ezagutzak ikas ditzan. Horregatik, egingo ditugun jarduera guztiek behaketa dute oinarri, ikaslearen **interesetara** eta **premietara** egokituta, motibazioa sustatzeko eta motibazioari eusteko.
- **Zenbait material eta jarduera** erabilia finkatuko dugu ikaskuntza; esate baterako, horma irudiak, jolas didaktikoak, sormen tailerrak, abestiak, olerkiak, igarkizunak, etab. Bereziki adierazi nahi dugu ipuinak oso garrantzitsuak direla, unitate didaktiko guztietan baitira elementu motibatzaile. Hain zuzen, ipuinek aukera ematen digute edukiak irakasteko, sormena landuz eta jolastuz.
- **Eskuz egiteko jarduerak** nabarmendu nahi ditugu, horien bidez ingurua arakatzen baitu haurrak.
- Jolasak berebiziko garrantzia du adin hauetan; horregatik du **jolasa oinarri** proiektu guztiak, irakasteko eta ikasteko prozesua dinamikoa izan dadin.
- Garrantzitsua da, halaber, **lankidetzako eta elkarlaneko giroa** sortzea ikasgelan, ikasleen sozializazio prozesua eta ikasleen arteko elkarrekintza bultzatzeko. Horrenbestez, jarduerak banaka, talde txikitan eta talde handitan egitea proposatzen dugu.
- Irakasleak funtsezko zeregina du, bitartekari lana egin behar baitu, eta horrez gain, giro atsegina sustatu, haurrak bere buruarengan konfiantza izan dezan, eta haren **autoestimua eta konfiantza** sendo daitezen.
- Proiektuaren metodologiak honako hau du oinarri: **familiekin lankidetzan** aritzea, haiekin informazioa trukatuta.
- **Kulturartekotasuna eta balioetan heztea** dira kontuan hartu ditugun alderdi garrantzitsuak, eta hori hala dela nabarmen ikusten da proposatutako jardueretan.
- Azken batean, ikaslearen garapen integrala bultzatzen duen metodoa proposatzen dugu, eta, hala, **erlijioari buruzko jakin-mina piztu**.

Hori guztia kontuan izanik, honako hauek dira Berit proiektuaren **helburuak**:

- Erlijioari buruzko jakin-mina piztea, jarduera orokorren eta jolasa oinarri duten jardueren bidez.
- Ikasleen ahalmenak garatzea, zenbait adierazpide eta komunikazio modu erabilia.
- Ingurune hurbileko erlijio elementuak ezagutaraztea.
- Bizikidetzaren sustatzea, kulturen eta gizartearen dagoen aniztasunarekiko errespetua bultzatuta.
- Haurrei Bibliaren berri ematea, ezagutza iturri baita.
- Jesus maite eta zaintzen gaituen lagun ona dela jakinaraztea.
- Familiek seme-alaben erlijio hezkuntzan parte har dezaten sustatzea.

Berit proiektuaren materiala

Ikaslearentzako materiala

Ikasturte bakoitzean honako material hau erabiliko da:

- Ikaslearen liburua. Bederatzi unitateko jarduera koaderno da, eta curriculumaren helburuak betetzen ditu; liburuarekin batera honako material hau erabiliko dute:
 - Eskuak erabiltzeko materiala: gometxak eta eranskailuak.
 - Trokelak.
 - _____(r)en Biblia liburuaren azala, erlijio alorreko laminekin osatuko dena ikasturtearen joanean; hau da, unitate bakoitzeko bigarren laminarekin.

Halaber, hiruhileko guztietan lamina bat aurkezten da, atzealdean ipuina eta jarduerak dituena.

- Familiarentzako informazio buletina.
- Abestien eta ipuinen CDa.

Jarduera koaderno



Abestien eta ipuinen CDa



Familiarentzako informazio buletina

Irakaslearentzako materiala

Proposamen didaktikoa, ikaslearen liburuko bederatzi unitatetan programatutako edukiak lantzeko iradokizunak biltzen dituena. Horrez gain, irakasleak 0 unitatea ere badu (ez dago ikaslearen liburuan); egokia irudituz gero, erabil dezan.

Unitate bakoitzak honako atal hauek ditu:

- Aurkezpena.
- Helburuak.
- Erlijio edukiak.
- Berariazko edukiak.
- Ebaluazio adierazleak.
- Balioretan hezteak.
- Ikaslearen liburuko laminen kopia, lanketa proposamenak dituena horietako bakoitzarentzat.
- Sormen tailerrak.
- Baliabideak (ipuinak, Bibliako kontakizunak, olerkiak, abestiak, igarkizunak...). Unitate bakoitzak ikaslearen liburuko lehendabiziko laminarekin zerikusia duen ipuin motibatzailea du, eta Sara eta haren lagunak dira protagonistak. Horrez gain, abesti bat ere badu, unitatearen interesguneak lantzeko aproposa.
- Bi finkatze lamina.

Hiruhileko bakoitzari ekin baino lehen, aurkezpena egingo dugu, zer interesgune dituen adierazteko, eta hiruhilekoari dagokion ipuina entzungo dugu; ipuinarekin zerikusia duten zenbait jarduera ere proposatu ditugu.

Liburuaren amaieran eranskina duzu; honako hauek biltzen dira bertan:

- Ikasgelarako horma irudiak, eta jarduera proposamenak.
- Jokoak.
- Jarduera eta jardunaldi solidarioak.
- Ospakizunak.
- Webgune interesgarriak (baliabide didaktikoei buruzkoak).
- GKE-en direktorioa.
- Haurrentzako filmen zerrenda, ikasgelan balioak lantzeko.

Proposamen didaktikoak, halaber, abestien eta ipuinen CD bat ere badu, ikasgelan hurrekin lantzeko.

Ikasgelarako materiala

- Bibliako pasarteak erakusten dituzten lau horma irudi handi: Adam eta Eva paradisuari, Noeren ontzia, Jesusen jaiotza eta Jesus predikatzen.
- Sara artzainaren txotxongiloa, **proiektuko maskota** bera, ikasturtearen joanean haurren laguna izango dena.



Material hori guztia **oihalezko zorrotxo** batean bilduko da. Zorrotxo hori, halaber, proposamen didaktikoan adierazitako jarduerak egiteko ere baliagarria da. Horrez gain, txotxongiloaren etxea ere izango da, eskola amaitzen denean.

Berit proiektuaren elementuak

Proiektuko maskota

Artzain bat hautatu dugu maskotatzat, Haur Hezkuntzako hiru ikasturteetan Berit proiektuaren hari izan dadin.

Bibliaren historiaren joanean Jainkoaren misterioa agertzeko hautatutako pertsona guztien ordezkari da artzaina. Besteak beste, Abraham, Isaak, Jakob... patriarkak gogorarazten dizkigu; Jesusen jaiotzaren berri izan zuten artzainak, hura lehendabizi gurtu zutenak; bai eta Jesus ere, herria —Eliza— zuzendu zuen Artzain Ona.

Gure artzainak Sara du izena, eta hark zuzenduko gaitu proiektuaren joanean, haurrek erlijioari buruzko bizipenak izaten has daitezten.

Sara haurra artzaina da, eta artzainen familia batekoa. Alaia, maitekorra, atsegina, bidaiazalea eta jakin-min handikoa da; ikasteko gogo handia du, eta, garrantzitsuena, Jesusen laguna da. Haren bitartez, haurrak Jesusengana hurbilduko dira eta haren bizitzaren, familiaren, lagunaren eta mezuaren berri izango dute.



_____ (r)en Biblia

Ikasturte osoaren joanean osatuko duten liburua da _____ (r)en Biblia. Erlijio alorreko laminak izango ditu liburuak; hau da, unitate bakoitzari dagokion bigarren lamina.

Liburuaren azala ikaslearen liburuaren amaieran dago. Haurrek apaindu egin beharko dute, askatu dituzten lamina guztiei azala jartzeko.

Askatu dituzten laminak ez hondatzeko, komeni da haurrek karpeta bana edukitzea horiek gordetzeko.

Unitateen egitura

Unitate bakoitzeko hiru lamina daude ikaslearen liburuan, eta beste bi finkatze lamina, proposamen didaktikoan, fotokopiak ateratzeko aukera ematen dutenak. Hiru lamina horietako bakoitzaren bidez, bizipen jakin bat landuko dugu.

- 1. lamina: **lamina motibatzailea**, haurren **bizipenean** oinarritzen dena. Lamina horretan, ipuinak, irudiak edo haurrek ezagutzen dituzten edo bizi izan dituzten egoerak biltzen dira. Horrela, bada, norberaren bizipenak abiapuntutzat hartuta, haurrek gai jakin batean motibatzea da helburua; esaterako, honako mota hauetako egoerak aurkeztuko ditugu: kontatutako ipuinei buruzko irudiak, eskolako une jakinak, familiakoak, lagun taldeko egoerak... Lamina horren ikonoan haurrek biribilean ikusten dira.



- 2. lamina: **erlijio alorreko lamina**. Erlijio Katolikoari buruzko oinarritzko edukiak erakusten dira, eta lehendabiziko laminan landutako norberaren bizipenarekin lotzen da. Bibliako kontakizunak, kristauon bizipenak, erlijioari buruzko testuak eta kristauon ikurrak landuko dira lamina horren bidez. Lamina horren ikonoan, Biblia bat ikusten da, eta hura pixkanaka osatuko da, ikasturte amaieran **(r)en Biblia** izeneko liburua egiteko. (Ikus 9. or.).

Bereziki erreparatu behar diegu **Bibliako kontakizunei**, giro atsegina eta erakargarria sortzeko. Oro har, kontakizunak laburrak izango dira, baina beren baitan mezu bat izan behar dute. Horrez gain, entzuten ari diren haurrei irudikatzen une bat izan dezaten aukera eman behar die, beren burua ere protagonista sentitzeko. Guztiongandik hurbil dagoen Jainkoaren mezu bat izan behar dute beti funtsean.

Hitzak oso garrantzitsuak dira etapa honetan, hasiera-hasieran Biblia transmititzeko izan ziren bezala, kontakizunak familiaren barruan zabaltzen baitziren. Hortaz, irakaslearen zereginak berebiziko garrantzia du, Bibliako kontakizunak irakurri eta haren mezua transmitituko baititu. Garrantzi handia izango du ahotsaren potentziak, intonazioak, begiratuak...


Biblia lantzeko **urratsak**, ondoz ondokoak, honako hauek dira:

- Hiru urterekin: ikusi eta entzun.
- Lau urterekin: ikusi, entzun eta ulertu.
- Bost urterekin: ikusi, entzun, ulertu eta jardun.



● 3. lamina: **erlijioari eta/edo giza bizipenari buruzko lamina.**

Haurren eguneroko egoerak erakusten dira bertan, egoera horietan aurki ditzaten, besteak beste, **kristauon balioak** (elkartasuna, tolerantzia, bizikidetasuna, bakea...), jaiak, ospakizunak eta erlijio adierazpeneko gertaera jakinak, aurreko laminan ikasitakoak guztiak. Azken batean, gaur egun kristauak nola bizi diren erakutsiko diegu haurrei. Esate baterako, haurrak gauzak elkarbanatzen, hitzen bidez arazoei irtenbidea ematen, festak ospatzen eta abesten erakusten dituzten irudiak erakutsiko dizkiegu, bai eta beste kultura batzuetako haurrak erakusten dituztenak ere. Lamina horren ikonoan, Sara artzainaren aurpegia, proiektuaren maskotarena, ikusten da.



izena: _____

- Kontatu zenbat kandela dauden laminan, eta idatzi zenbakia laukian.
- Margotu mitala gainean dauden kandelak eta gurutzak, akuzarekin erabiliz.

izena: _____

- Margotu izena.
- Sari erantsailak, eszuma osatzeko (3. u. erantsailak).
- Urteko koloretako zeta paperarekin zatiak, eta klasi erregraren janzlan.
- Atzealdean, ipelkua izera purpurinat, argoari jagoaren dietilo, paper distirabatuz, etab.

Laminen atzealdean jarduerak daude, aurrealdean egitekoak, eta zenbaitetan, lan laminak.

Erljio edukiak: 3, 4 eta 5 urte

EDUKIAK	IKASTURTEA																											
	3 urte									4 urte									5 urte									
	Unitatea									Unitatea									Unitatea									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9	
1. Giza gorputza, Jainkoak sortua gurasoen laguntzarekin. Sexuen arteko desberdintasuna (neska-mutila), Jainkoarengandik jasotako dohaina.		X									X										X							X
2. Osasuna balioestea, Jainkoaren oparia baita. Jainkoak emandako bitartekoak osasuna zaintzeko: laguntzen diguten eta maite gaituzten pertsonen hurbiltasuna, elikagaiak, jantziak eta garbitasuna.	X	X		X				X										X		X								
3. Kreazioa, Jainkoak sortua, seme-alabentzako oparia. Natura eta gauzak zaintzean eta erabiltzean laguntza eta errespetua eskatzen du Jainkoak. Esker ona eta mirespena kreazioagatik.		X		X	X		X	X	X								X			X		X		X	X	X	X	
4. Erljioaren ikurrak:						X								X	X	X								X	X	X		
Argia.														X	X									X	X			
Ura.															X									X				
Gatza.																												
Olio.																											X	
5. Jainkoa gure Aita da, zaindu egiten gaitu eta besteei laguntzeko adorea ematen digu.		X					X	X				X				X				X		X				X		
6. Jainkoak hitz egiten du. Biblia, kristauen liburu santua. Jainkoaren hitza bere baitan hartzen duen liburua mirestea eta zaintzea.	X	X	X			X	X	X	X	X	X					X				X	X	X					X	X
7. Zenbait testu garrantzitsu, Jesusi eta Mariari buruzkoak, batik bat:			X				X			X	X	X	X	X		X												X
Gure Aita.		X				X			X						X					X							X	
Agurmaria.																												X
Gure kristau tradizioko erlijio adierazpen batzuk.																												X
8. Kristauontzat adierazgarriak diren zenbait hitz:	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Jainko Aita.	X					X			X						X					X							X	
Jesus, Jainkoaren Semea eta gure laguna.	X	X					X	X	X					X						X	X					X		
Andre Maria, Jesusen Ama eta gure Ama.				X																								
Eliza.				X									X											X				

EDUKIAK	IKASTURTEA																										
	3 urte									4 urte									5 urte								
	Unitatea									Unitatea									Unitatea								
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
9. Jesu Kristoren maitasuna. Jesusen jaiotzari, bizitzari, heriotzari eta piztuerari buruzko kontakizunak.			X		X			X			X		X					X		X		X					
10. Jesusek pertsonak zaintzen ditu eta haietaz arduratzen da. Ebanjelioaren pasarte batzuk:	X				X			X	X																	X	
Ardi galdua.								X																			
Ezteiak Galileako Kanan.																										X	
Jesu eta haurrak.	X																										
11. Elkarrizketa Jainkoarekin: kristauaren otoitza. Gizakiak Jainkoarekin hitz egiten du hari entzuteko, laguntza eskatzeko eta eskerrak emateko.							X			X		X		X												X	
12. Jainkoak guk elkar maitatzea nahi du, berak maite gaituen bezala. Eguneroko jarduerak baliabideak dira, familiaren bizitza eta besteekiko harremanak eraikitzeko, Jainkoak esandakoa betez.	X		X		X		X	X	X		X	X					X	X		X		X		X	X	X	
13. Kristau maitasuna keinu zehatzen bitartez adieraztea: agurtzea, laguntzea, gauzak elkarbanatzea, barkatzea eta barkamena eskatzea, eta ikaskideei laguntzea.	X		X					X	X		X					X	X		X	X						X	
14. Familia: erlijioaren eta kristautasunaren berri izateko eta bizitzeko gunea.			X	X	X	X		X			X									X		X					
Jainkoaren seme-alabak gara, eta haren familiako —Elizako— kide.					X																						
Esker onaren eta pozaren adierazpenak, familia bateko kide izateagatik.			X								X											X					
15. Lagunekin, ikaskideekin eta inguruko pertsonekin izaten den portaera.	X		X	X		X	X		X		X					X	X		X							X	
16. Igandearen balioa, Jaun piztuaren jaia baita.			X	X	X						X	X	X		X					X		X	X				
Kristauon jai nagusiak.			X	X							X	X	X						X		X						
Kantua: gorespeneren, pozaren eta esker onaren erlijio adierazpena.			X	X							X	X	X		X				X		X						
17. Haurrak gertu dituen erlijioari buruzko lexikoa, irudiak eta eraikinak.			X	X	X		X				X	X	X		X				X		X				X	X	

Edukien segida: 3 urte

	1. unitatea	2. unitatea	3. unitatea	4. unitatea	
Interesguneak	Ikastetxea.	Udazkena. Gorputza.	Eguberriak. Familia.	Jolasak eta jostailuak.	
Jarrerak eta balioak eguneroko bizitzan	Poza sentitzea, ikastetxera joaten garelako.	Norberaren gorputzaren sentsazioak eta pertzepzioak balioestea.	Eguberriak gustatzea eta gozatzea.	Elkarbanatzea garrantzitsua dela balioestea.	
Erljio edukiak	(2, 8, 10, 12, 13, 15) Kristauon maitasuna adieraztea, elkarbanatzean.	(1, 2, 3, 5, 6, 8) Gorputza balioestea eta eskertzea, Jainkoaren oparia baita. Biblia, kristauon liburu santua. Biblia: Kreatzioa.	(6, 8, 9, 14, 16, 17) Jesusen jaiotza. Kantua: gorespeneren eta pozaren adierazpena. Familia: erlijioaren berri izateko gunea.	(2, 3, 6, 7, 12, 13, 14, 15) Kristauon maitasuna eguneroko egoeretan. Barkamena balioestea, bakea lortzeko bidea baita. Biblia: Josef, Jakoben semea.	
Espesientziaren arloak	Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala	Norberaren sentimenduak, emozioak eta premiak adieraztea.	Norberaren eta besteen gorputza zaintzeko eta errespetatzeko jarrera.	Ingurune ospakizunetan, tradizioetan eta ohituretan parte hartzea eta gozatzea.	Laguntzeko eta lankidetzan aritzeko jarrera. Esker ona adieraztea.
	Ingurunearen ezaguera	Ikastetxeko kideak nor diren jakitea: ikaskideak eta irakasleak.	Inguruneari buruzko jakin-mina.	Eguberrietako ospakizunak.	Norberaren eta ikaskideen gauzak errespetatzea eta zaintzea. Egoera baketsuak eta gatazkatsuak bereiztea.
	Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena	Ekimena eta parte-hartzea komunikazioko egoeretan. Agurra harremanetarako erabiltzea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: paper zatiak egitea eta itsastea, marraztea, margotzea.	Naturarekin zerikusia duten sentsazioak eta pertzepzioak adieraztea. Ekintzen antzezpena. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: zulatzea, plastilina zabaltzea, marraztea eta margotzea.	Gabon kanta herrikoiekin gozatzea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: paper zatiak margotzea, urratzea eta itsastea, paper bolak egitea eta itsastea.	Komunikatzeko oinarriko arauak erabiltzea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: paper zatiak urratzea eta itsastea, margotzea, zulatzea.

5. unitatea	6. unitatea	7. unitatea	8. unitatea	9. unitatea
Etxea. Eliza.	Aste Santua.	Udaberria: animaliak eta landareak.	Maria.	Uda. Oporrak.
Etxea, familiakoen arteko harremanetarako lekutzat hartzea.	Errespetuzko jarrera, erlijio ospakizunetan.	Jakin-mina, errespetua eta ekimena animalien eta landareen zaintzan.	Poza sentitzea, maitatua sentitzeagatik. Zaintzen eta maite gaituzten pertsonak balioestea.	Taldean lan egitearen garrantzia balioestea. Desberdinak direnenganako errespetuzko jarrera.
(3, 8, 14, 15, 16, 17) Eliza, Jesusen eta kristauen etxea. Jesusen familia.	(4, 9, 10, 12, 14, 16, 17) Elizak dituen erlijio ikurren eta elementuen berri izatea. Jesusen bizitza Biblian: Azken Afaria. Igandea, kristauon jaia.	(3, 5, 6, 8, 11, 15) Natura, Jainkoaren opari. Esker ona gure Aitari bizitzagatik. Biblia: Noeren ontzia.	(2, 7, 8, 12, 14, 15, 17) Mariaren irudiaren berri izatea eta hari buruz ikastea. Maria, Jesusen ama.	(3, 5, 6, 8, 10, 12, 13) Jesusen besteak besteak zaintzen irakasten digu. Besteak maitatzea, desberdintasunak alde batera utzita. Bibliak Jesusen irakaspenak jakinarazten dizkigu: Ardi galdua.
Norberaren portaera zaintzea, zenbait egoeratan.	Emozioak eta sentimenduak adieraztea.	Animaliekiko eta landareekiko tratu egokia eta errespetuzkoa.	Zorion sentimenduak adieraztea.	Besteei laguntzeko jarrera.
Elizaren eta etxearen ezaugarriak jakitea.	Inguruko erlijio adierazpenei erreparatzea: Aste Santua.	Ingurumenari erreparatzea.	Familiako kideak.	Inguruneak udan dituen ezaugarriez jabetzea.
Familiako bizipenak adieraztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: margotzea, paper zatiak itsastea, marraztea.	Testuekiko eta irudiekiko errespetuzko eta entzutezko jarrera. Hainbat egoera antzeztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: arroza itsastea, zulatzea, zotzak itsastea, margotzea.	Aho korapiloak errezitatzea. Abestiak buruz ikastea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: zotzak itsastea, margotzea, gainmarratzea.	Maite ditugun pertsonenganako afektuzko jarrerak erakusteko interesa. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: gainmarratzea, marraztea, margotzea, plastilina zabaltzea, paper bolak egitea eta itsastea.	Zenbait egoera antzeztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: zotzak itsastea, zulatzea, marraztea, margotzea, puntuaz estaltzea.

Edukien segida: 4 urte

	1. unitatea	2. unitatea	3. unitatea	4. unitatea	
Interesguneak	Ikastetxea.	Udazkena. Gorputza.	Eguberriak. Familia.	Jolasak eta jostailuak.	
Jarrerak eta balioak eguneroko bizitzan	Ikastetxeko jardueretan parte hartzeko interesa.	Norberaren gorputza zaintzeko jarrera positiboa. Norbanakoaren desberdintasunetikiko errespetua.	Eguberrietako pertsonaia nagusiak ezagutzeko jakin-mina.	Gatazkak bakearen bidez konpontzeko interesa.	
Erljio edukiak	(8, 10, 12, 13, 15) Kristauon maitasuna eguneroko egoeretan. Jainkoak guk elkar maitatzea nahi du, eta keinu jakinen bidez adieraztea: laguntzea eta elkarbanatzea. Jesusen bizitza Biblian: Jesus eta haurrak.	(1, 3, 6, 8, 11) Jainkoari eskerrak ematea gure gorputzagatik. Sexuen arteko desberdintasuna, Jainkoaren dohaina. Biblia: David erregea.	(6, 7, 8, 9, 14, 16, 17) Eguberriei buruzko lexikoa. Eguberriak, familia elkartzeko unea. Eguberrietan parte hartzea. Jesusen bizitza Biblian: Deikundea eta artzainen gurtza.	(5, 12, 13, 15) Barkamenak bakea eraikitzen laguntzen digu. Maitasuna, barkamenaren ikurra. Kristau jarrera, lagunekin elkarbanatzea.	
Esperientziaren arloak	Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala	Harremanetarako eta bizikidetzarako oinarrizko arauak.	Norberaren gorputzak mugitzeko dituen aukerak. Norbanakoaren eta besteen mugak onartzea.	Ondo egindako lana balioestea. Norberaren jarrera zaintzea eta kontrolatzea.	
	Ingurunearen ezaguera	Denonak diren espazioak eta materialak errespetatzea eta zaintzea.	Norberaren gorputza zaintzeko eta errespetatzeko ekimena. Udazkenean naturan gertatzen diren aldaketek jabetzea.	Familiako kideak eta haien portaerak bereiztea. Eguberrietako elikagai tipikoak zein diren jakitea.	Egoera positiboak eta negatiboak bereiztea.
	Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena	Adierazteko eta komunikatzeko moduekiko gustua. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: marraztea, margotzea, urratzea, moztea.	Aurpegiarekin eta gorputzarekin egindako keinuak, komunikatzeko. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: marraztea, margotzea, moztea, itsastea.	Kantuaz eta musika interpretazioaz gozatzea: Gabon kantak. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: marraztea, margotzea, plastilina moldeatzea.	Sentimenduak eta bizipenak adieraztea. Bizi izandako edo irudikatutako egoerak antzetztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: moztea, itsastea, marraztea, margotzea.

5. unitatea	6. unitatea	7. unitatea	8. unitatea	9. unitatea
Etxea. Eliza.	Aste Santua.	Udaberria: animaliak eta landareak.	Maria.	Uda. Oporrak.
Eliza kristauen arteko topaketarako lekutzat hartzea.	Errespetua eta mirespena, erlijio ospakizunetan.	Ingurua garbi edukitzen laguntzea eta bultzatzea.	Jarrera positiboa afektuzko adierazpenetan.	Poza sentitzea, lagun taldea izateagatik.
(4, 7, 8, 11, 12, 16, 17) Eliza, Jesusen etxea eta kristauen arteko topaketarako lekua. Erljio ospakizunak elizan. Kantua eta otoi-tza, pozaren eta esker onaren erlijio adierazpena. Biblia: Jerusalemeko tenpluaren eraikuntza.	(4, 7, 8, 9, 16, 17) Erljio ikurrak, lexikoa eta erlijio irudiak Aste Santuan. Jesusen bizitza Biblian: Azken Afaria.	(3, 4, 5, 8, 11) Natura mirestea, Jainkoaren oparia baita. Jainkoak errespetua eta lankidetzat eskatzen digu naturaren zaintzan. Biblia: Krea-zioa.	(2, 6, 7, 8, 16, 17) Mariarenganako maitasun eta hurbiltasun sentimenduak. Maria, Jesusen ama. Jesusen bizitza Biblian: Jesus haurra tenpluan.	(8, 12, 13, 15) Jesusen adiskidetasunaren balioa irakasten digu.
Lankidetzan egindako lana balioestea.	Emozioak eta sentimenduak adieraztea.	Norberaren portaera zaintzea izaki bizidunekiko.	Laguntzarako eta lankidetzarako jarrera. Konfiantza, zaintzen dituztenengan.	Norberaren portaera zaintzea besteekiko harremanetan.
Erljio ospakizun bati erreparatzea: meza.	Bizitokiko komunitateko ohiturak eta folklorea. Gertaera garrantzitsuak: Aste Santua.	Ingurumenarekiko gustua eta ingurumenaz gozatzea. Udaberriaren zenbait ezaugarri-jabetzea.	Ingurune-ko irudiei erreparatzea.	Udako berezko jolasetan eta jardueretan parte hartzea.
Irudiak irakurtzea: ikur sinpleak. Kontaktizunak antzeztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: urratzea, itsastea, marraztea, margotzea, zulatzea.	Egoerak antzeztea. Zenbaki- eta koloreen kodeak bereiztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: margotzea, plastilina zabaltzea, bernizatzea, moztea, itsastea.	Kontaktizunak eta abestiak antzeztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: marraztea, margotzea, moztea, itsastea, zulatzea, plastilina moldeatzea.	Sentimenduak eta emozioak adieraztea, irudien aurrean. Egoerak eta abestiak antzeztea. Olerki bat buruz ikastea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: paper bolak egitea, margotzea, marraztea, itsastea, gainmarraztea, plastilina zabaltzea, bernizatzea.	Olerki bat buruz ikastea. Jolas sinbolikoak. Abesti bat antzeztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: marraztea, margotzea, itsastea, moztea, puntuaz estaltzea.

Edukien segida: 5 urte

	1. unitatea	2. unitatea	3. unitatea	4. unitatea
Interesguneak	Ikastetxea.	Udazkena. Gorputza.	Eguberriak. Familia.	Jolasak eta jostailuak.
Jarrerak eta balioak eguneroko bizitzan	Adiskidetasuna balioestea.	Norberaren gorputza zaintzeko jarrera positiboa. Desberdintasun sexualak eta fisikoak errespetatzea eta onartzea.	Familiakoen arteko harremanak balioestea. Elkartasuna, premia dutenekiko.	Beste kultura batzuetako jolasak ezagutzeko interesa.
Erljio edukiak	(5, 8, 9, 12, 13, 15) Eguneroko jarduerak, kristaun maitasuna erakusteko.	(1, 2, 3, 6, 8) Jainko Aitari eskerrak ematea, gure gorputzagatik eta sexuen arteko desberdintasunengatik. Biblia: Naaman sendatu.	(6, 8, 9, 13, 14, 16, 17) Eguberriei buruzko lexikoa. Eguberriak, familia elkartzeko unea. Eguberrietan parte hartzea. Jesusen bizitza Biblian: Errege Magoen gurtza.	(3, 5, 6, 12, 13, 15) Arraza aniztasuna, Jainkoaren dohaina. Kristau portaera besteekiko. Biblia: Babelgo dorrearen eraikuntza.
Esperientziaren arfoak	Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala	Jarrera positiboa, besteen afektuzko adierazpenen aurrean.	Emozioak eta sentimenduak adieraztea.	Besteekiko laguntza, lankidetzeta eta elkarlana. Arauek errespetatzea. Ikaskideak errespetatzea, diskriminazio mota oro baztertuta.
	Ingurunearen ezaguera	Portaera egokia kidekoen arteko harremanetan.	Udazkenean gertatzen diren aldaketei erreparatzea, eta horiek aztertzea. Norberaren gorputza zaintzeko tokiak, lanbideak eta zerbitzuak.	Kultura arloko ohiturak eta tradizioak: Eguberriak. Beste herrialde batzuetan dituzten jolas adierazpenen berri izatea: abestiak, dantzak, jolasak eta jostailuak. Komunikazioaren garrantzia, taldean lan egiteko.
	Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena	Ekintzak eta egoerak antzetzeta. Istoria bat asmatzea taldean, eta hura marrazkiekin apaintzea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: gainmarratzea, margotzea, marraztea, moztea.	Norberaren gorputzak hotsak egiteko ematen dituen aukerekin gozatzea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: marraztea, margotzea, itsastea, moztea.	Gabon kanta herrikoiekin gozatzea. Abestiak buruz ikastea. Ekintzak antzetzeta. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: zulatzea, itsastea, margotzea, urratzea, marraztea.

5. unitatea	6. unitatea	7. unitatea	8. unitatea	9. unitatea
Familiartekoen ospakizunak. Erljio ospakizunak: bataioa.	Aste Santua.	Udaberria: animaliak eta landareak.	Maria.	Uda. Oporrak. Garraiobideak.
Erljio ohiturak eta ospakizunak balioestea.	Errespetuzko jarrera kristau ohiturekiko.	Natura eta ingurunea zaintzen laguntzen duten ekintzak bereiztea.	Afektuzko jarrera maite dituzten pertsonetikiko.	Oporretan poza erakustea.
(4, 8, 14, 16, 17) Erljio ikurrak eta elementuak. Erljio ospakizunak: bataioa. Kristauon familia handia: Eliza.	(3, 4, 8, 9, 12, 16) Erljio ikurrak, lexikoa eta irudiak Aste Santuan. Jesusen bizitza Biblian: Heriotza eta Piztuera. Jesusen Piztueraren ospakizuna.	(1, 3, 4, 5, 8) Naturarekiko esker ona eta mirespena, Jainkoak pertsoneri egindako oparia baita. Olioa erljio ikurtzat hartzea.	(6, 7, 8, 10, 11, 12, 17) Mariarenganako mirespen sentimenduak. Otoitza: Agurmaria. Maria, Jesusen ama eta gure ama. Jesusen bizitza Biblian: Ezteiak Galileako Kanan.	(6, 12, 13, 15, 17) Eguneroko jarduerak, besteekin harremanak izateko. Eskerrak ematea Jainkoari, beste leku eta pertsona batzuk ezagutzeagatik. Biblia: Abrahamek agindutako lurraldera egindako bidaia.
Familiarteko harremanak balioestea.	Besteengan emozioak eta sentimenduak hautematea.	Zentzumenak erabiltzea, natura arakatzean.	Gertuko maitasuna sentitzen dugula balioestea.	Ideiak eta desioak jakitera ematea.
Familiarteko ospakizunetan eta erljio ospakizunetan parte hartzea.	Natura ingurunean gertatzen diren aldaketei erreparatzea. Bizitokiko komunitateko ohiturak eta folklorea. Gertaera garrantzitsuak: Aste Santua.	Ingurumena zaintzea eta errespetatzea.	Familian laguntzeko eta lankidetzan aritzeko jarrerak hautematea.	Leku batetik bestera joateko garraiobideen erabilgarritasuna balioestea. Beste leku batzuk ezagutzeko interesa.
Erljio ikurrak hautematea. Irudien deskripzioa. Ospakizunen bat antzeztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: puntuaz estaltzea, margotzea, itsastea, gainmarratzea, plastilina moldeatzea, bernizatzea.	Poza kantuaren bidez adieraztea. Kontakizun bat antzeztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: marratzea, margotzea, moztea, itsastea, plastilina zabaltea, bernizatzea, gainmarratzea.	Deskripzio sinpleak egitea. Animalien hotsak imitatzea. Ekintzak antzeztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: marratzea, margotzea, gainmarratzea, moztea, itsastea.	Kontakizun bat antzeztea. Kantua goresteko erabiltzea. Ekintzak mimika eginez adieraztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: moztea, itsastea, marratzea, margotzea, bernizatzea.	Hizkuntza zuzen erabiltzeaz gozatzea. Pasarteak eta kontakizunak antzeztea. Plastikako zenbait teknika erabiltzea: marratzea, margotzea, moztea, itsastea.